

# BULEGO GISA ERABILTZEKO GUNEA ALOKATZEKO ESKAINTZA

**Argitalpen data:** 2021/7/30

**Aurkezpen zabaltze epea:** 2021/8/2

**Aurkezpenerako azken data:** 2021/8/15

## I.- DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da Bidasoko Erakustazokan kokatutako gunea bat eskaintzea, alokairu zibileko erregimenekoa, bulego gisako erabilpen bakarrekoa, ondoren zehazten diren baldintzetan.

Deialdia Oinarri hauetan eta ekainaren 2ko 9/2016 Legean eta Kode Zibilean alokairuei buruz ezartzen denaren arabera arautuko da. Alokairua hautaketarako prozesu publiko baten bidez egingo da, berdintasuna, meritua, gaitasuna eta publizitatea bermatzen duena.

## II. GUNEAREN DESKRIBAPENA

74,5 m2 dituen barruko bulegoa, honela banatuta:

54,85 m2-ko gunea diafano erabilgarria duena, zapai altuera 3,17 metrokoa, klimatizazio independentea eta banatze itxitura dituen.

Barrungo bulegoa 10,4 m2 erabilgarri dituen eta zapai altuera 2,48 metrokoa.

Komuna 8,6 m2 erabilgarri, kanpoaldera lehioa duena.

## III.-ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK ETA MERITUAK

Hornikuntza honetara aurkeztu ahal izango dira ondoko betekizunak betetzen dituzten guztiak:

- Gutxienez, 2 urteko jarduera aurretik.
- Gune horretan egingo den jarduera garatzeko derrigorrezkoak diren altak, lizentziak, baimenak eta eskumenak edukitzea.
- Ordainketa guztiak egunean daudela egiztatzen duen agiria eta zorrik ez edukitzea Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrearekin, ezta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ere.
- Garatuko den negozioaren edo jardueraren azalpen-memoria.
- 
- Era berean, baloratu eta aintzat hartuko dira ondoko merituak:
- Egitekoa den jarduerak euskal kostaldearen sustapenean izango duen eragina.
- Negozioak/aktibitateak Ficoba Fundazioaren helburuekiko bateragarritasuna.
- Negozioaren antolamenduak bat egitea Erakustazokan garatzen diren jardueren antolamendura eta funtzionamendura, baita Ficoba Fundazioaren jardueretara ere.

Eskatzen diren betekizunak betetzen diren eta adierazitako merituak baloratzerako, erreferentzia data eskaintza hau argitaratzen den eguna izango da, eta egun horretan bertan irekiko da eskaerak aurkezteko epea.

## IV.- ESKAERAK AURKEZTEA

Eskaerak Ficoba Fundazioaren bulegoetan aurkeztu ahalko dira (Iparralde hiribidea 43, 20302 Irun), Fundazioaren Kudeatzaitzari zuzenduta, edo Ficoba Fundazioaren web orriko posta elektronikoaren bidez ([ficoba@ficoba.org](mailto:ficoba@ficoba.org)) 14 egun naturaleko epean, iragarkia Ficoba Fundazioaren web orrian ([www.ficoba.org](http://www.ficoba.org)) argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatuta.

Eskaerek ondoko betekizunak bete beharko dituzte onartuak izan daitezen:

a. hautagaiek adierazi beharko dute eskaintza honetan eskatzen diren baldintza guzti- guztiak betetzen dituztela.

b.- Hautaketa Organoak baloratu ahal izateko, hautagaiek beraien datuez eta arestian aipatutako memoriaz gain, egokitzen jotzen dituzten datu eta dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzte.

## V.- EBAZPENA

Hautagaitzak onartzeko epea amaituta, Ficoba Fundazioko hautaketa organoak aztertu eta ebaluatuko du aurkeztu den dokumentazioa eta parte hartzeko betekizunak betetzen dituzten pertsonen zerrenda egingo du, eta zerrenda bat argitaratuko du Ficoba Fundazioaren web orrian, prozesuari amaiera emanez baztertutakoei dagokienez.

Fundazioko hautaketa organoak ebaluatuko du hautaketa prozesuan onartutako pertsonen alderdi formalak eta jarduerari zein ibilbide profesionalari buruzkoak, eskatzaile bakoitzak alegatu eta egiaztatutakoa eta dokumentazio osagarria kontuan izanik.

Hautagaiei buruzko aipatutako balorazioa, gehienez, hilabeteko epean berraztertuko du Fundazioko hautaketa organoak, eta horretarako, behar duen aholku tekniko eskatu ahalko du, eta hautagaiei deitu ahalko die elkarriketa pertsonalak egiteko, hala egiteko beharra ikusten duen kasuan/kasuetan, eta horren helburua izango da Fundazioaren Patronatuari betekizunak ongien betetzen dituzten hautagaien zerrenda, kontuan izanik zerrenda hori gehienez hiru hautagaik osatuko dutela.

Ficoba Fundazioaren Patronatua azken hautaketa egiteko organo eskuduna den aldetik, eskumeneko eran baloratuko ditu arestian aipatutako meritua eta baldintzak, eskaera egokiena hautatzeko, arrazoitutako ebazpenaren bitartez.

Dagokion Ebazpena jakinarazi ondoren, dagokion alokairu kontratazioa formalizatuko da, Kode Zibilean araututa, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik, salbu eta Fundazioaren Patronatuak prozesua luzatzea erabakitzen badu, arrazoitutako ebazpenaren bitartez.

Kontratua urtebetekoa izango da (berriztagarria) eta prezioa hilean 750 €-koa (zergak eta hornidurak barne ez daudela).

Ficoba Fundazioak inolako alokairurik ez egitea erabaki ahalko du eskabideetako bakar bat ere ez dela egokia irizten badu.